

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea kreditu gehigarriaren 5/2025 espedienteari

Bat etorri otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoarekin, eta inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez 5/2025 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onspena eman zion erabakiaren aurka, espediente hori behin betiko onetsita geratzen da, era honetan:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (€)
151 227073	ENERGIA BERRIZTAGARRIAK EZARTZEKO PROIEKTUEI ETA PLANEI BURUZKO ALEGAZIOAK ETA LANAK IDAZTEA	10.000,00 €
920 226991	ERANTZUKIZUNAGATIKO KALTE-ORDAINA	5.135,09 €
920 227030	LANPOSTUEN BALORAZIOA	23.000,00 €
GUZTIRA		38.135,09 €

Zenbateko hori honako baliabide hauen bidez finantzatuko da, eta espediente parekatuta eta defizitik gabe geratuko da:

DIRU SARREREN PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA (€)
87001	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	38.135,09 €
GUZTIRA		38.135,09 €

Behin betiko onespen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2025eko abenduaren 4a

Alkate-lehendakaria

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA